



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-12-14

VIURTEA 1.584.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Mikel Olaetxeak jantzi du Bigarren Mailako Lau t'erdiko txapela

LIZARTZA 22-21 irabazi zion Aratz Mendizabali Tolosako Beotibar pilotalekuan jokaturako partida estu batean

GIROA Frontoia lizartzarraren aldeko zaletuez bete zen; partidaren amaieran Olaetxea «oso pozik» azaldu zen 4



Herriko aizkolarien saioa izan zen karrapen; ondoren, Saralegi eta Perurena aritu ziren. N. URBIUZ

«INSTITUZIOETAN ERE IKURRINA BEHAR DA»

LEITZA Bai Euskal Herriari ekimenak 'Geurea ikurrina' ikurrinaren aldeko ekimen nazionala antolatu zuen atzo egun osoan zehar 7

Kirol asteen baitan, ekitaldi ugari gurean

TOLOSALDEA Anoetan eta Zizurkilen azken eguna izango dute gaurkoan; Ibarra, berriz, aste osoan izango dira ekitaldiak kirolaren inguruan 6



Jon Tecedor gogoan izan zuten Danena-Olaederrako pultsulariek. R. CALVO



www.mondragon.edu/prest



Krisiari aurre egiteko prest! MU, aurretik doan unibertsitatea.

» **Uzturretik**

Andu Martínez de Rituerto

Badirudi bizi dugun krisi ekonomikoaren eragile nagusienetarikoak etxebizitzaren prezio neurrigabeak eta urte batzuetan eman diren mailegu merkeak dira. Pasa den astean lagun batek aipatu zidan Buenafuentek Telebistan duen programan Leopoldo Abadia izeneko ekonomialariari gai serio eta larri honen gaineko elkarrizketa mamitsuua, ironiaz eta graziaz betea egin zio-

la eta ikusteak merezi zuela. Datu hauekin interneten berehala topatu nuen, eta egia esan, bai, ikusgarria da gizon honek gaia azaltzeko duen trebezia eta salta. Zenbait momentuetan irribarrea baino gehiago eragiteko gaitasuna... gaiak inongo graziaz ez duela konturatzaren arte. Itxuraz, orain dela urte batzuk, maileguetako interesak oso baxu zeudela, AEBetako banketxeek bide horretatik negozio handirik egiten ez zutela ikusita, etxebizitzak erosteko mailegu merkeak eta etxearen balioetik gorakoak ematen hasi ziren ordaintzeko bater bermerik ematen ez zuten

jendeari. Banketxeen kalkuluen atzean zer zegoen? Etxebizitzaren neurririk gabeko prezioak etengabe gora jarraituko zutela aurreikusita, lepotik gora zorpetuta gelditzen ziren horiek mailegua ordaintzerik ez zuten unean, etxebizitzak kendu, saldu eta mozkin ederrak lortu. Kontuak gaizki atera zitzaizkien ordea eta pentsa baino gehiagok mailegua ordaintzeari utzi omen zion eta etxebizitzak saltzerik ere ez zuten izan, eta bere hanka-sartze eta zor erraldoia europara eta mundu osora esportatzea erabaki zuten krisia globalizatuz; baino hau guztia nik baino askoz ere hobeto

eta era atseginagoan bideoanikus dezakezue.

Demontre! Nahi baino gehiago luzatu naiz sarreran eta gainera ur handitan sartuz, nik ez baitakit ezer ekonomiaz eta agian sekulako astakeriak idatzi ditut.

Mamira joango naiz: era batera edo bestera honen guztiaren oinarrian etxebizitzaren prezioaren arazoa dago. Aste honetan bertan giza eskubideen 60. urteurrena izan da eta etxebizitzak, oinarrikobehar bat den heinean, aldarrikapen unibertsal honetan jasotzen da (25. artikuluan hain zuzen). Orduan, zergatik da posible etxebizitzekin negozioa egitea?

Nola onartu da espekulazio berritza hau? Nola da posible 50 urte gure soldaten erdia baino gehiago behar izatea etxebizitzak ordaintzeko? (ahal duenak gainera; zenbait soldaten arabera bikote baten laguntza behar izaten da mailegua ordaindu ahal izateko) Etxebizitza, lehenengoa behintzat, merkatuko zurrumbileroetik kanpora gelditu beharko litzateke. Etxebizitzaren prezioa neurritik gora egoteak, negozioa egin nahi duenari bakarrik egiten dio mesede. Nola edo hala arazo honi irtenbide bat eman behar zaio, eta bizitza osorako zorpetu gabe etxebizitza bat erosteko aukera izan beharko genuke denok. Dena den, jadanik epe luzearako zorpetuta gaudenok irtenbideren bat izango ote dugu?

E **Esanak**

«Emakumeek paper protagonista gutxiago dugu, akaso eguneroko bizitzan bezala da»

«Filmazioa amaitu ondoren, erditze ondorengo depresioaren modukoa da»

«Beti han eta hemen aritzen diren lauzpabost aktore kenduta, besteak moden menpe gaude»

BARBARA GOENAGA (AKTOREA)
Gaztezu, abenduko alea

Z **Zurea da hitza** **info**

Eskola Iraunkorra ziurtagiria Samaniegorentzat

Tolosa » Eskola Agenda 21eko partaide dira beste 24 ikastetxeri ere eman zioten saria pasa den azaroaren 3an.

SAMANIEGO IKASTETXEA

Eskola Agenda 21eko partaide diren Euskal Autonomi Erkidegoko 25 ikastetxek (Bizkaitik 17, Arabatik 4 eta Gipuzkoatik beste 4) Eskola Iraunkorra ziurtagiria jaso zuten azaroaren 3an Busturiako Madariaga Dorretxean, horien artean Tolosako Samaniego Herri Ikastetxea.

Euskadiko Bioiniztasunaren zentroan egindako ekitaldian Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua, Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua eta Mario Bertero UNESCOko ordezkaria izan ziren, besteak beste.

Esther Larrañaga ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak nabarmendu zuen bezala «bost urteko prozesu luze eta zorrotza gainditu du ikastetxeak» eta urte hauetan ingurumenaren alde azaldu duen jarreragatik jaso du esker on hau, honen lekuko eman dako bandera eta plaka.

A **Argazki zaharra**

Orendaingo plazaren irudi zaharra

Euskara ahaztu?

AITOR (TOLOSA)

Urduri dabil azken aldian Tolosako Udala, aparkamenduekin eta trafikoarekin izaten ari diren arazoak direla eta. Kolektorearen obregatik dela esaten dute eta hala denez, ba aguantatu egin behar, ez omen dugu besterik herri-tarrek. Ados.

Aparkaleku subterraneo era-biltzeko deialdiak egin dituztela

irakurri dut askotan. Hori bai, euskara etxean ahaztu zuten aparkaleku hau seinalizatu zuten egunean, kartel guztiak erderaz baitaude.

Hor ba nire kritika, burua zuritzen hainbeste neurri hartu eta gero euskaldunon herri batean berriak diren kartel batzuk erdara hutsean... Penagarria benetan. Dagonkionari.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

S Soka motzean

«Talkaren mintzoa izan daiteke komikigintza»

IÑAKI MARTIARENA, 'MATTIN'
Komikilaria

REBEKA CALVO

Komikigintza hitza eta marrazkiaren arteko jolasa dela dio Iñaki Martiarena *Mattin* komikilaria. Ibarren topatu dugu, Galtzakomik lehiaketako epaimahaikidea izan baita, emakume askok hartu dute parte lehiaketan eta horrek poza ematen diola ere esan digu marrazkilaria, beste kontu askoren artean.

Zer islatu ohi duzu zure komikietan?

Ateraldiak edo xelebrekeriak islatzeko joera izan dut betidanik. Umorea erabili ohi dut.

Umeen moduan, hortaz, burutik pasatzen zaizkizun ateraldi bidea ematen diezu.

Haurrek beti izaten dute ateratzeko, zerbait aditzera emateko, joera. Urteen eraginez batzuk jarraitzen dugu horri bidea ematen, eta beste batzuk, berriz, eten egiten dute.

Umetzat duzu, orduan, zure burua.

Beno... umetzat ere bai. Umea eta umorea lotuta daude.

Zer da komikigintza zuretzat?

Topatzeko tokia da, nik egiten dut bide erdia eta irakurle eta ikusleak bestea. Batzuetan, hala ere, topo egiten da eta beste batzuetan talka. Talkaren mintzoa izan daiteke komikigintza.



Lehen baso espeziak hasi dira azokan

Azoka » Bisitari kopurua handia izan ez arren, salmenta ugari izan ziren; neguko barazkien eskaintza oso zabala da.

rren asterako zihuerenez, eskaintza gora egingo du. Hauekin, eta berrikuntza bezela, Cronos barazkia izan zen; hau patatares antzeko tuberkulua dugu, eta platerak apaintzeko gaitasuna duen barazki goxoa da.

Fruta zerrenda ere oso zabala izan zen. Errezil sagarra asko, kiwi ugari, eta gaztaina, instaura eta urra fruitu lehorren artean.

Aipatu beharra dago hemendik datorren astean gabonetako azoka berezia izango dugula, eta honekin berrikuntza asko eta produktu ugari ikusiko dugula ziur esan genezake.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna berrikuntza jositako azaldu zitzaigun Tolosan. Atari kalean aurtengo baso eta frubarbol denborada hasi zen, aurtengo lehenengo postuak aurkeztuz. Hantxe izan ziren gabonetako pinuak eta normannianak, datozen festak apaintzeko, eta dato-

» ATZOKO AZOKA

BERDURA		Barazkiak (sorta)	
PLAZA	Merk. Gares.	Roblea	1,00 -
Landareak		Erremolatxa	1,50 2,00
Erromeroa	4,00 6,00	Azenarioa	1,20 6,00
Salbia	1,00 1,20	Barazkiak (unitatea)	
Xarbota	4,00 6,00	Kalabazina	0,72 -
Krisantemoa	12,00 20,00	Azalorea	1,00 -
Biola	3,00 -	Trebisoa	0,90 -

BERTAKO PRODUKTUAK		Besteak	
Perretxiak		Arrautzak	1,10 2,40
Nikaloa	15,00 -	Madalenak	3,60 -
Onddoa	15,00 30,00	Ardigazta	14,00 18,00

Fruta		PRODUKTU EKOLOGIKOAK	
Mizpiradia	3,00 -	Fruta	
Hurra	2,00 3,00	Sagarra	2,00 3,00
Intxaurra	2,50 4,00	Intxaurra	4,00 6,00

Barazkiak (kiloa)		Barazkiak	
Babarrun zuria	8,00 -	Dilistak	2,40 -
Gardua	3,00 -	Arbi morea	4,00 -
Kalabaza	1,50 3,00		

B Blogteka



Eguberrietako kontzertuak

Tolosako Orfeoia bi kontzertu emango ditu:

Abenduaren 20an Donostian, Victoria Eugenia antzokian, Gipuzkoako Belenzaleen Elkartek Eguberrietan egiten duen pregoia dela eta.

Tolosan, berriz, Eguberrietako kontzertua abenduaren 23an, asteartea, 20:30ean, Leidor Aretoan, izango da. Urteroko emanaldi honetan, bazkide partikularrek eta enpresek sarrera doan izaten dute.

Bi kontzertuetan ondorengo musika-egitaraua izango da: J.S. Bach-en Eguberrietako Oratorioko Kantata aukeratu batzuk eta garai honetako abesti tipikoak.

Iruñeko Concerto orkestrarekin batera jardungo du Orfeoia, Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, eta bakarlarri hauek hartuko dute parte: Amaia Arberasopranoak eta Marife Nogales kontraltoak.

Sarrerak: Kontzertuko sarrerak eskuratu daitezke Tolosako Leidor antzokiko lehiatilan eta Interneten, Kutxaren web orrian edo generaltickets.com delakoan.

Sarreraren prezioa 10 euro da, baina bazkideak doan.

Tolosako Orfeoia
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/orfeoia>

Eguberriak 2008

Hiruhilabetea bukatzen ari da, lan asko egin dugu (ikasketak, Kanpainak, Euskararen eguna, Zilarrezko Q-a, Bai Euskarari, Zaindarien astea, Adimen emozionala...) eta horren adierazgarri web-ean dugu.

Orain, ezin dugu bukatu Olentzeroren berri ona zabaldu gabe; horretarako gara eskola kristaua eta euskalduan. Salbatzailearen etorrera ospatzeko ondorengo egitaraua duzue: pastoraltzan, Gabonetako kanpainetan parte hartzeko eskatzen dizuegu (latak), gerturatu zaitzete Abegirako janaria eta

garbitasunerako behar direnak. Hilaren 20an 19:00etan meza.

Abenduaren 24an 18:00etan Gabongauke meza Jesuitinetan.

Antzerkia LHko ikasleek abenduaren 17an 10:00etan (2. eta 3. zikloa) eta 15:30etan (1. zikloa), ikasle eta familientzat.

Abenduaren 24an 10:30ean Hirukide Jesuitinetatik irten eta betiko ibilbidea egingo dugu kalez kale abestera. Ondoren hamaiketako! Olentzero eta erregeen laguntzaileen bisita abenduaren 17an goizeko 11:30ean.

Jaialdia HHkoek familikoei abestuko die abenduaren 16an 15:30ean. Abenduaren 15ean Lehen Ziklokoek familientzako emanaldi 16:00etan prestatu dute.

Haur eskola jaialdia: Abenduaren 19an 16:30ean 2 urteko haurren saioa.

Abenduaren 23an urte bateko en saio txoa 16:30ean.

Hirukide ikastetxea
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide>

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZak

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritza eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali abenduaren 20a baino lehen: donostia@irutxulokohitza.info edo deitu **943-46 72 36** telefono zenbakira

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Lehia handiko partida izan zen atzo, Tolosako Beotibar frontoian Olaetxeak eta Mendizabalek egin zutena. R.CALVO

Olaetxea, Bigarren Mailako Lau t'erdiko txapeladuna

Lizartza » Olaetxea partida erditik aurrera «leher eginda» bazegoen ere Mendizabali irabazi zion; 22-21 amaitu zen jokaldia.

R. CALVO

Emozio handiko partida izan zen Mikel Olaetxea lizartzarrak eta Aratz Mendizabal zaldibitarrek atzo, Tolosako Beotibar frontoian jokatu zutena. Frontoia leporaino zegoen beteta eta jokalarien jarraitzaileek sutsuki animatzen zituzten bi gazteak. Partida nahiko berdintuta joan zen, 22-21 bukatzeraino. Emozioa, hortaz, bukaerara

arte bizitu zen frontoian. Lizartzararren garaipena, gainera, ondo merezitakoa izan zen, partida osoan zehar oso ondo aritu baitzen, nahiz eta partida ondoren argitu zuenez «partida erditik aurrera edo leher eginda egon naiz». Garaipenak datorren urtean onenena lau t'erdiko txapelketan aritzeko bidea ireki dio lizartzarri.

Markagailua

Markagailuan ez zen alde handirik izan. Hain zuzen, lau puntuko alde izan zen handiena, Mendizabal 16-12 irabazten ari zela Olaetxeari. Memento horretan, hain justu, oso nekatuta sentitu zen Olaetxea, partida bukatuta komuni-

kabideei azaldu zienez, baina botilero lanetan aritu den bere anaia animatu zuen eta arriskatzeko esan zion. Indarberritu egin zuena, antza. «Tanto batzuk oso onak atera zaizkit, beste batzuk ez horren onak. Partidari buelta ematea lortu dut, behintzat», argitu zuen zentzu honetan.

21-21 eta urduritasunak

Azken tantoa falta zela Olaetxeari gauza asko pasa zitzaizkion burutik eta galduta ere ikusi zuen partida, baina azkenean txapela eramandu lizartzarrak etxera. Oso gustura, sinestu ezinik, zegoen gaztea partida bukatuta, izan ere bere lehen txapela da: «Ez nuen espero irabaztea, partidaren erdian galduta nuela pentsatu dut».

Zaletuentzat ere oso hitz politikak izan zituen: «Txapelketa osoan asko lagundu didate eta ez dakit nola eskertuko dieten».

Bientzako izan zen partida berezixamarra, lagunak dira, eta batera entrenatu ohi dute Aniceto Lazkanorekin, horrenbestez arraro xamarra egin zitzaizen bata bestearen kontra aritzea, baina txapela artean egonda beldurrak gainditu eta partida bizia eskaini zuten. Izan ere, gazteak bai, baina eskarmentu handiko pilotariak dirabiak; Zaldibikoa sei denboraldi egin ditu ia profesional bezala, eta Olaetxea, aldiz, urte eta erdi bakarrik daruma profesional moduan, baina lan ederra egin du orain arte.

Partida eta gero bi jokalariek, lagun eta senitartekoekin batera, Tolosako Usabal sagardotegian afaldu zuten.



Saridunak, tartean Navararren aita, pozik agertu ziren sari banaketan. R.CALVO

Banatu dituzte Galtzakomik lehiaketako sariak

Ibarra » Aurkeztutako Ibarako 20 lanetatik Irene eta Maria Lopez ahizpek zein Leire Reik aipamen berezia jaso zuten.

REBEKA CALVO

Ostiral iluntzean banatu zituzten Ibarako Benito Izagirre kultur etxean Galtzakomik euskarazko komikien lehiaketako sariak.

Guztira 105 lan jaso dituzte

105 lan jaso dituzte guztira eta ez bakarrik Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Nafarroatik ere iritsi zaizkie eta lanak, eta horrexegatik uste baino gaztetxo gutxiagok izan zuten Ibarrra gerturatzeko aukera.

HITZAN aurreratu moduan, irabazleak hauek izan ziren: hamar urtetik beherakoan artean Nafarroako Olazti herriko Markel Galbete, nahiz eta Leire Rei zazpi urtetako ibartarrak ere aipamen berezia jaso zuen; 11 eta 17 urte bitartekoan artean Iruñeko Beñat Iturbe eta Altxoko Pablo Arzuza izan ziren sarituak, nahiz eta Ibarrrako Irene eta Maria Lopezen lanek ere izan zuten aipamen berezia; 18 urte gorakoan artean, aldiz, Javier Navarro tolosarra izan zen lehena eta Hernaniko Ainara Aspiazu bigarrena.


Joseba Antxustegietxarte komikilaria eta epaimahaiko kideak esan zuenez, antolatzaileentzat «pozgarria izan da oso» lehiaketak jaso duen erantzuna.



Alpino Uzturreren 50 urteak bilduta

TOLOSA » Alpino Uzturre mendi elkarateak 50 urte betetzen ditu aurten, eta urte horiek guztietako oroitzenak bildu nahian, liburu-bideoa egin dute. *Uzturretik mundura* izenburupean, atzo aurkeztuko zuten Kultur Etxean elkaratearen sorreraren 50 urte betetzen zen egun berean, hain zuzen ere. REBEKA CALVO

 TOLOSALDEA GORNAKERO L.R. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langile eta langabeentzat)			DOAN
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOIA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Automatizazio industrialak (MEKANIKOENTZAT EGOKIA)	35	2009-01-12	Astehenetik ostegunera 18:00 - 21:00
Galdaragintza eta trazatuen garapena CNC hari bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programazioa	60	2009-01-12	
Teknologia PNEUMATIKO sist. automatikoak NEUMATIKA	30	2009-01-12	
Datu-baseak egilea eta diseinatzea (ACCES)	50	2009-01-12	
Enpresa txiki bateko kudeaketa eta administrazioa CAD-CAM. Abiadura handiko mekanizatzea NX	40	2009-01-19	
Egiaztapen dimensionala (METROLOGIA)	40	2009-01-19	
Pertsonei harrera kudeaketa (ADIMEN EMOZIONALA)	20	2009-02-02	
Posizio horizontaleko TIG galdaragintza	50	2009-02-02	
CAD 3D Modulatua eta planoak (Solid Edge)	30	2009-02-02	
CNC Fresagailuaren programatzea (FAGOR)	46	2009-02-02	
ESKAERAK ETA BESTE IKASTAROAK WEB ORRIAN			
Matrikula eta informazioa: Telefona 943 65 11 47 Santa luzia, 17 - 20400 TOLOSA idazkaritza@tolosaldea.com www.tolosaldea.com			
			



Kirola » Gaur amaituko dituzte kirol asteak Anoetan eta Zizurkil; Ibarra hasi baino ez dira egin.

ERREDAKZIOA

Gorputzari eraginez. Horrela igaro zuten atzoko eguna Zizurkil, Anoeta eta Ibarra kirol asteetan parte hartu zuten ehunka lagunek.

Zizurkil egun berezia izan zuten atzokoan. 12 orduz kirolean jardun zuten zizurkildarrek eta omenaldientzat tartea ere izan zen egun erdi honen baitan. Hain zuzen ere, Jon Tecedor pultsularia izan zuten gogoan. Danena Olaederrako kirolaria duela hilabete batzuk hil zen, motor istripuan. Taldeko pultsulari eta pultsulari ohi guztiak altxaldi bat egin zuten haren omenez. Une hunkigarria izan zen Tecedorren taldekide eta lagunentzat.

Halaber, Aimar Irigoien eta Telleria anaiak harri-jasotzaileek erakustaldia egin zuten, Intxaur frontoian. Galdutako indarrak afarian berreskuratu zituzten. Ondoren, XII. Gau Krosa korritu zuten, partaidetza altuarekin.

Bizikleta ganean, gogotsu

Anoetako kiroldegia arratsaldean txirrindulariz bete zen, bertan egin baitzuten cycling maratonia. Gogotsu jardun zuten guztiak ere, izerdiabotaz.

Gaurkoarekin esango diote agur

Gorputza gogor astindu dute kirol asteetan parte hartu duten lagunek



Zigonezko eta emakumezko ugari hartu zuten parte Anoetako maratonia. N.L.



Mahai tenis ikastarotxo egin zuten atzo arratsaldean Ibarra. R. CALVO

Kirol Asteari Anoetan, familian gozatzeko ekitaldi batekin. Izan ere, haur eta heduak batuko dituen ginkana jolas berezia egingo dute gaurgoizean. Herriko familientzat igandea igarotzeko plan egokia, ez bairik gabe.

Ibarra, mahai tenisarekin ekin diote

Atzokoa izan zen lehen ekitaldia Ibarra Belabieta kiroldegian. Mahai tenisa aukeratu zuten, gai-

» EGITARAU: GAUR

Zizurkil eta Anoetan azken eguna dute gaurkoan; Ibarra oraindik ekitaldi ugari dituzte aurretik, atzo hasi baitzen bertan Kirol Astea:

Zizurkil

■ **12:00.** Erremonte partidak Intxaur frontoian: Etxabe II-Zubirraterra Ibarzabal-Baleztenaren aurka; eta Zeberio II-Aizpurua II Uterga-San Migelen aurka.

Anoeta

■ **10:00.** Ginkana familiarra: taldeak gutxienez heldu eta ume bategi osaturik egon behar direla jakinarazi dute.

Ibarra

■ **10:00.** Xakeko Gipuzkoako Taldeen arteko partida azkarren Txapelketa izango da Belabieta kiroldegian.

nera, Kirol Astearekin hateko. 10 urte gorako gaztetxoentzat ikastaroa egin zuten.

Datozen egunotan, xakea, eskalada, motorra, mendia eta pilotaren inguruan antolatuta dituzte kirol jarduerak. Honen baitan, proiektzioak, erakusketak, ikastaroak... izango dira, besteak beste. Kirol Astea baliatuz, Ate Irekien jardunaldiak egingo dituzte kiroldegiak, instalakuntzak ezagutzera emateko.



Elkartasunaren aldeko golak

Bai Euskal Herriarik antolatuta, Naziotasun jardunaldiak

Villabona » Asteartetik ostiralera bitarte, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte; Gurea aretoan izango dira denak.

ERREDAKZIOA

Villabonako Bai Euskal Herriari herri ekimenak Naziotasun jardunaldiak antolatu ditu asteartetik aurrera. Jardunaldien baitan, ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte, guztiak ere Gurea aretoan garatuko dituztelarik.

Asteartean, *Nazio bat, selekzio bat, federazio bat* lelopean hitzaldia egingo dute. Bertan izango dira Realeko jokalaria den Mikel Labaka eta eta Esaiteko kide Egoitz Askasibar.

Erakusketak aste osoan

Honetaz gain, asteartetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara, erakusketak eta DVDa izango dira ikusgai Gureako erakusgelan. Bertan, Bai Euskal Herriarik burutu diuten hainbat ekimen agertuko dituzte.

ARANBURU ardotegia

ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.

Etixerainoko Zerbitzua

Santio kalea, 4 • VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24

TOLOSA • Hilaren 18an, ostegunarekin, Etorkinaren Eguna da eta Ereite El-karte Multikulturalak III. Jardunaldiak antolatu ditu. Hauen baitan, areto futboleko II. Adiskidetasun Txapelketa antolatu du. Atzo izan ziren lehen partidak Uzturpe frontoian eta Usabalgo kiroldegian (irudian, elkarren aurka aritu ziren Peñascal eta Maroko taldeak). Garrantzia gutxi du nork irabazi. Garrantzitsuena elkartasunaren alde eskua ematea da kasu honetan. Txapelketaz gain, datozen egunotan hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte. N. URBIZU

Ikurrina euskal instituzioetan jartzeko «konpromiso zehatzak behar dira»

Leitza » Bai Euskal Herriari ekimenak, Leitzako Udalarekin batera Ikurrinaren aldeko ekitaldi nazionala antolatu zuen.

NEREA URBIZU

Eguraldia ezin zen okerragoa izan: bi gradu, haize hotza, eta elur bustia. Ikurrinaren aldeko ekitaldi nazionala egin zuten hala ere Leitza eta karrapen egindako ekitaldiek eguerdia epeltzea lortu zuten. Ordu batez atzeratu zuen jaialdiaren hasiera eguraldi kaxkarrak, baina dena eraman zuten aurrera. Ikurrina euskal instituzioetan jartzeari dagoen garai hauetan Guardia Zibila ere azaldu zen: herriaren sarreran kontrola jarri zuten, eta oinez, paseoren bat edo beste ere egin zuten plaza inguruan.

Mikel Luloaga Bai Euskal Herriari ekimeneko eleduna ere Leitza izan zen eta hitz batzuk izan zituen bertaratutako zirentzat; «euskal instituzioetan euskal herriarrak ordezkatzeko dituztenei» dei bat egin zuten «konpromiso zehatzak har ditzaten»; guztietan, Udalatan, diputazioetan, legebil-



Saralegi eta Peruren harri altxaldiak egin zituzten. Eskuinean, txekor pintxoak jateko prest n. u.



tzar zein parlamentuan, «Ikurrina gainontzeko euskal ikurrekin batera zintzilikatua izatea», hain zuzen. Hau, «Euskal Herria aurrera egin nahi duen herria delako».

Era berean, eragile sozialei, sindikalei eta politikoei Ikurrinaren defentsa egin dezaten dei egin zuten ekimeneko enizenean.

Xabier Zabalo alkateak *Geurea Ikurrina!* adierazpena irakurri zuten bertaratutako zirenen aurrean.

Tartean, Nafarroa Garaian Ikurrina legez debekaturiko ikurra dela gogoratu zuten: «Beraz, ez dago euskal ikur hau eraikin publikoetan agertzerik». Horrez gain, «Nafarroa kudeatzen duten administrazioetatik, eraikin publikoetan espainiar ikurra jartzera behartzen dituzte».

Horregatik, «gure ustetan, euskal instituzioetan Ikurrin egon behar du beste euskal ikurrekin

batera, eta ez inposaturiko atzerriko banderarik», gehitu zuten Xabier Zabalo.

«Inposaketari aurre egin»

«Inposaketa honi erantzutea euskal herritar orori dagokigu» eta pauso berriak emateko asmoa agertu zuten. Esaterako, «Euskal Herrian indarrean diren instituzioak gidatzen dituztenei, Euskal Herriaren aurkako espainiar agin-

duak ez betetzeko deia luzatu dugu» *Geurea Ikurrina* adierazpenarekin. Guztia, «Euskal Herria, izena eta izana elkar uztartzea ezinbestekoa delako gure herriaren etorkizunerako».

Etxeko herri-kirolarien saioa
Irrintzi indartsu batek eman zion hasiera atzoko ekitaldiari: ondoren, txalaparta jo zuten bi herritarrek eta txekor pintxoak dastatzeko aukera izan zen ondoren, etxe-

Herri kirol saioan herriko lau aizkolari eta Mieltxo Saralegi eta Iñaki Perurena aritu ziren

koen herri kirol saioarekin batera. Alazne Untsaldo eta Iker Gorosterrazu bertsolariek bertso bana bota zuten Ikurrinaren alde.

Herrikirol saioan herriko aizkolari gazteak aritu ziren: Jon Recondo, Arkaitz Olan, Ruben Saralegi eta Xanti Olan *Bitorla*. Harriak jasotzen Iñaki Perurena eta Mieltxo Saralegi izan ziren. Inaxio Perurena ere joatekoa zen baina gaixo jarri zen, katarroak jota. Herrikirolariak ikusi bitartean txekor pintxo goxoak dastatu ahal izan ziren karrapen.

Ondoren, bazkaria izan zuten eskolan, 150 lagun inguru bildu ziren. Patxi eta Konpainiarekin dantzatzeko aukera ere izan zen. Gaztetxean Gobernons eta Surfing Kaposen kontzertuak izan ziren.

Gaztetxearen XXI. urteurrenean AHTren aurka

Alegia » 60 lagun elkartu ziren babarrun-jaterako; AHTren aurkako manifestazioa ere egin zuten iluntzean.

N. URBIZU

Alegiako Gaztetxearen XXI. urteurrena ospatzen ari dira. Prestatu duten egitarauaren baitan, atzoko egunerako ekitaldi ugari antolatu zituzten, AHTren aurkako egunarekin bataiatuta. Babarrunjatea prestatu zuten eta honetara 60 lagun joan ziren. Beraz, Alegiako AHTren aurkako taldeari, beraz, 120 euro emango zaio.

Bazkaloste luze xamarra egin zuten, ez baitzen gainera girorik kalean. Gainera, herriko bertsolariek lan fina egin zuten Gaztetxe giro ona mantentzeko. Altxotik *Laxo* jaitsi zen, eta herritarren artean, Garmendia, Irazustabarrena, Artola, Iriarte eta *Xabala* aritu ziren.

AHTren aurkako manifestazioa ere antolatu zuten atzo iluntzean, eta 40 bat herritar bildu ziren. Bestalde, zozketa bat egin zuten Alegiako AHTren aurkako taldeak eta 15 zenbakia izan da saritua.



Alegiako Gaztetxean, bazkaldu ondorengo herriko bertsolarien saioan. n. u.



40 bat lagun bildu ziren AHTren aurkako manifestazioan. n. u.

Zahagi ardoa prestatu zuten Gaztetxean, gero izango ziren kontzertuetarako egun osoan izandako giro horri eusteko. Hesian eta Disorders taldeak izan ziren gauean. Bi taldeak ere, arduratuko ziren horretaz.

Mus Txapelketa ostiralean

Datorren asteazkenean, 21:30a aldera zine-kluba izango da. Hurrengo ekitaldia hilaren 19an izango da. Kasu honetan Mus Txapelketa izango da eta parte hartu nahi duten bikoteek Gaztetxean bertan eman beharko dute izena. 22:00ak aldera komeni da joatea izena emateko.

Iragarki laburrak

LANA

- **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu: 629 487 868.
- **Etxea.** Intzako herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzeko, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, landetxe jartzeko aukera. 628 03 07 27, 646 111 485 eta 609 2183 41.
- **Abeslaria.** Erromeri eta ezkontza taldeak abeslari behar du. Interesa dutenek deitu: 658 70 1196.

SALGAI

- **Lursaila.** Goierri: 3.500 m²ko lursaila salgai, etxea egiteko auke-

rarekin. Aralar magalean. 300 m² eraikiak. Esplotazio baterako leku egokia. Deitu: 629 487 868.

- **Etxea.** Intzako herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzeko, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, landetxe jartzeko aukera. 628 03 07 27, 646 111 485 eta 609 2183 41.
- **Motorra.** 2002-03-04 eta

2005. urteko Yamaha WR 450-F motoentzako pro circuit T14 markako eskape osoa, eta pieza asko. 600 euro dena. 667 41 88 75.

HARREMANAK

- **Lagun bila.** 45 urteko gizonezkoa 25-50 urte bitarteko lagun gayen bila, konpromisorik gabeko harremanetarako. Topaleku lasaia daukat. Idatzitako helbide honetara: alulaga@yahoo.es.



GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	6°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Gaztain erreak 16:00etatik 20:30era plazan.

Zinema

■ **Tolosa.** Zine elkarrizketak Bonberenean 18:30ean: *Grass* filma, *Marihuana, la hierba de la discordia*.

Azoka

■ **Bedaio.** Bedaioko pilotalekuan Bedaioko produktuez osaturiko azoka egingo dute. Goizeko kontua izango da azoka, 10:00etan irekiko dute eta 14:00ak arte iraungo du.
■ **Ibarra.** Merkatu Txiki Misiolaria Ekuador, India eta Hondurasen alde 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Parrokia-ko lokaletan.

Kirola

■ **Zizurkil.** Erremonte partidak In-txaur frontoian 12:00etan: Etxabe II.a eta Zubizarreta Ibarzabal eta Baleztenaren aurka; eta Zeberio II.a eta Aizpurua II.a Arteaga eta San Miguelen aurka.
■ **Ibarra.** 10:00etan Xakeko Gipuzkoako Ekipoen arteko partida azkarren txapelketa Belabietan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112
Bihar
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1.943 673649.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Euskal kantuak zabaldu dituzte herrian

VILLABONA Herrian bizitasuna jar-tzea eta alaitasuna zabalduz euskal kantuen bitartez. Horixe da Herria Kantuz ekimen berriaren helburua. Eta halaxe aritu ziren atzokoan hainbat billabonatar, herriko kaleetan zehar. Kantuan hasi aurretik meriendatxoa ere egin zuten. Gaztain goxoak jan ondoren, gutzieren artean ezagunak diren abestien doinuak zabaldu zituzten herriko kaleetan. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu baina hori ez zen ozpoa suertatu bertaratu zirentzat. Lehen saioa baino ez zen izan atzokoa, baina arrakasta ikusita, ziur urtean zehar saio gehiago egingo dituztela. Jendea ere gustura azaldu zen eta «euskal kulturaren harira, ondo pasatzeko aitzakia bikaina» zela azaldu zuten. Belarriak gozatuko zituzten behintzat euren kantuekin gozatu zutenek... N.URBIZU

A Agurrak



Urte askoan!

Joxepa. Zoriontasunaren emailere poztasunaren sortzaile.

V I L L A B O N A K U L T U R A

KAPITALISMOAREN KRISIA

hitza

JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU

Abenduak 15 • 19:30ean • Mintzolan • Euskara-Gaztelera

Villabonako Udala Aritza Kultur Taldeak antolatuta Kultura Batzordea

Orain da garaia

Euskal Gobernuak, etxebizitzia, baleta edo baserrietako jabeentzat, 1.650 € arteko diru laguntzak eskaintzen ditu etxebizitzia berritzeko, energia aurrezki berrak duen leho zaharrik aldatzeko.

Zufiazko ra delu.
(Baina bikatza eta europar salidareko zihurtagiria duten egurrezko lehoen fabrikazioan inbertituztuz) eta sekulasa bederatsen lagunduko diru-gu. Aurrezki 22% zure leho berritan eta nequaz gozatu.